



Hondarribian, 2023ko maiatzaren 22an

Hurrengo alkate izango zaren horri,

Oraindik zure izena ez dakigun arren, Hondarribiko herritarron ongizatearen alde, alkatetzari fede onez ekingo diozula sinisten dugu. Zentzu honetan, urte gehiegiz luzatu den Alardearen gatazkari amaiera duin bat emateko asmoa izango duzula pentsatu nahi dugu.

Horrela, orain arte gehiegi sustatu ez den elkarrizketaren bidetik, konponbidearen alkate bilakatzea espero dugu. Udaletxearen tresna legal guztiak martxan jarriko dituen herritarren arteko banaketa eta segregazioarekin behingoz amaitzeko.

Gogorarazi nahiko genizuke ere bai, Hondarribiko Udalak Alardea ondare immateriala dela deritzola; edo beste modu batean esanda, herri guztiaren ondarea den ekintza kultural babestua dela. Horrela, haren etorkizuna arriskuan jarri, pertsona gutxi batzuen esku gelditu den gure legatu baliotsua berreskuratu eta herriari itzultzea bermatu beharko zenuke. Hau da, herritar guztion ondarea zaintzeko konpromezu sendoa hartu beharko zenuke.

Amaitzeko, gustatuko litzaiguke hurrengo alkate izango zaren hori, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean zalantza izpirik gabe sinistea, Alardean emakumearen parte hartzeko eskubidea bermatuz.

Zentzuak agintzen duen bide honetatik bazoaz, hurrengo alkate jaun edo anderea, gure babes osoa edukiko duzu.